



## AKTEA/28

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2024-09-24)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-09-24 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:03
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:13
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA
<b>Idazkaria:</b>	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503

Datea: 25/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9



## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-09-17 TGB (27)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Bermeoko E.U. 21.2. esku-hartzeko eremuko 8 eta 11 partzelen xehetasun azterlana hasieraz onartzea.
- 4.- Bermeoko Baratz Eder kalea 17A zenbakiko lokaleko bizigarritasun lizentzia onartzea.
- 5.- PIIE dirulaguntza: Iparragirre 3 BS ez. 14960505Q NAN zenbakidun pertsona interesdunaren dirulaguntza eskaria onartzea.
- 6.- PIIE dirulaguntza: Iparragirre 3, 1 ez. Y2611726K NIE zenbakidun pertsona interesdunaren dirulaguntza eskaria ez onartzea.
- 7.- Begirale ikastarorako prezio publikoak onartzea.
- 8.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 9.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaietara heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-09-17 TGB (27)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko irailaren 17ko 27/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIARIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503  
Data: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9



daukatela adierazi dute.

Momentu honetan Miren Karmele Gabantxo batzar gelara sartu da.

### 3.- BERMEOKO E.U. 21.2. ESKU-HARTZEKO EREMUKO 8 ETA 11 PARTZELEN XEHETASUN AZTERLANA HASIERAZ ONARTZEA.

#### Xedea

Bermeoko E.U. 21.2. Esku-hartze eremuko 8 eta 11 partzelen Xehetasun Azterlanaren hasierako onarpena.

#### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko martxoaren 26an, E.U. 21.2 esku-hartze eremuko P8 eta P11 partzelen Xehetasun Azterlana aurkeztu zuen 30.605.783-M NAN zenbakidunak B48109821 IFK zenbakidun Construcciones Olabari S.L. enpresaren izenean.

Bigarrena.- 2024ko abuztuaren 23an Bermeoko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2024ko irailaren 3an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumena Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Laugarrena.-2024ko irailaren 3an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumena Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena igorri zuen.

Bosgarrena.- 2024ko irailaren 13an Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak aldeko txostena egin zuen.

#### Argudioak

Lehenengoa.- 2024ko abuztuaren 23an udal arkitektoak adierazten duen moduan:

Bermeoko HAPOak mugatutako 21.2 E.A-ko 8 eta 11 lursailentzat hurrengo hirigintza xedapenak zehazten dira (BAO 78. zenbakia, 2012ko apirilaren 24koa):

Sailkapena: Hiri lurzoru finkatua

- Kalifikazio orokorra 21.2: R.3 Egoitza irekiko erabilera
- Kalifikazio xehatua 21.2 E.A-ko 8. eta 11. lursailak: R.4 Dentsitate baxuko egoitza erabilera
- Eraikigarritasuna, 21.2 E.A-ko 8. lursailarena: 548,54 m<sup>2</sup> sestra gainean



- Eraikigarritasuna, 21.2 E.A-ko 11 lursailarena: 1.032,77 m<sup>2</sup> sestra gainean

Ondoren, 2023ko abuztuaren 2an izandako Osoko Bilkuran, E.A. 21.2 esku-hartze areako 8. eta 11. partzelen Hiri Antolamendurako Plan Berezia behin betiko onartu zen (BAO 183. zenbakia, 2023ko irailaren 22koa). Bertan hurrengo xedatzen da:

- Saikapena: Hiri lurzorua
- 21.2 areako kalifikazio orokorra: R.3 Egoitza irekiko erabilera
- 21.2 areako kalifikazio xehatua: R.3 Egoitza irekiko erabilera
- Partzelaren azalera: 1.047,10 m<sup>2</sup> (8. partzela: 535,75 m<sup>2</sup>; 11. partzela: 511,35 m<sup>2</sup>)
- Eraikuntza-eraikigarritasuna: 1.581,31 m<sup>2</sup> (8. partzela: 548,54 m<sup>2</sup>; 11. partzela: 1.032,77 m<sup>2</sup>)
- Oin plantak: S+ES+B+1+AT
- Tipologia: mailakatua (sotoan: garaje erabilera eta erabilera osagarriak; erdisotoan: hegoaldera etxebizitza erabilera, eta sestra azpian (iparraldera) erabilera osagarriak; beheko solairuan, lehenengo solairuan eta atikoan: etxebizitza erabilera)
- Beheko solairuko kota ez da inoiz 70 cm baino handiagoa izango atzeko kaleko kotarekiko
- Ibilgailuentzako sarbidea: hegoaldeko kale-bidetik
- Oinezkoen sarbidea kolarretara: iparraldeko kale-bidetik

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak bere 73 artikuluan zehazten ditu Xehetasun azterlanen helburuak:

*“73. artikulua.– Xehetasun-azterketak.*

*1.– Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun- azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.*

*2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:*

*a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.*



b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.

c) Urbanizatzeko-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hirielementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.

3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe.”

Aurkeztutako dokumentuaren helburua da aurreikusitako eraikinaren lerrokadura berrantolatzea, gehienezko eraikigarritasuna gaintu gabe. Hau da, plan berezian nahitaezko lerrokadura bat (zehazkiago, iparraldera orientatutako lerrokadura) gehieneko lerrokadura batengatik ordezkatzear datza aldaketa. Zuzenketa horrekin, EKTaren irisgarritasun-eskakizunetara eta Eusko Jaurlaritzaren irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretura egokitu daiteke eraikina. Iparraldeko lerrokadura horrek zertxobait handitzen du atzeko kalearen profila, eta ez die kalterik egiten etorkizunean ingurunean egin daitezkeen eraikinen lerrokadurei.


Beraz, Xehetasun Azterlana egokitzen da Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak 73. artikuluan ezarritako irizpideetara.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak, 74. artikuluan, zehazten du xehetasun azterlanek jaso beharreko dokumentazioa:

“74. artikulua.– Agiriak.

Xehetasun-azterketen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

- 1.– Memoria bat, bi gauza hauek justifikatzeko: alde batetik, aurreko artikuluko
2. paragrafoan ezarritako legezko mugak errespetatu egin direla, eta bestetik,



*bere kasuan, plan orokorreko edo garapen-plangintzako zehaztapenak osatu edo egokitu egin behar direla.*

*2.– Informazio-planoak.*

*3.– Antolamenduaren planoak.”*

21.2 Esku-hartze eremuko P8 eta P11 partzelen Xehetasun Azterlana Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak 74. artikuluan ezarritako irizpideetara egokitzen da.

Bestalde, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak 98. artikulua dio:

*“98. artikulua.– Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.*

*(...)*

*2.– Hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.*

*(...)”*

Bigarrena.- Teknikariek egindako txostenetan azaltzen den moduan, xehetasun azterlana indarrean dagoen legeak ezarritako araubide eta irizpideetara egokitzen da, beraz, ez dago eragozpenik onartzeko.

Hirugarrena.- Tokiko Araubideari buruzko 1985eko apirilaren 2ko Oinarrizko Legeko 21. artikulua arabera, xehetasun azterlanaren hasierako onespina Alkateari jagoko, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

## **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2024ko martxoaren 26an, E.U. 21.2 Esku-hartze eremuko P8 eta P11 partzelen Xehetasun Azterlana aurkeztu zuen 30.605.783-M NAN. zenbakidunak B48109821 IFK zenbakidun Construcciones Olabari S.L. enpresaren izenean, hasieraz onartzea.

BIGARRENA.- Hasierako onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialari igorri eta



jendaurrean erakustea 20 eguneko eperako, dagozkion ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Idazkaritza eta Errenta Sailari helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hurrengoko Osoko Bilkuran

#### 4.- BERMEOKO BARATZ EDER KALEA 17A ZENBAKIKO LOKALEKO BIZIGARRITASUN LIZENTZIA ONARTZEA.

##### Xedea

Bermeoko Baratz Eder kaleko 17 A zenbakiko lokaleko bizigarritasun lizentzia.

##### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2022ko abuztuaren 4an, 72.385.056-P NAN zenbakidunak obra baimena eskatu zuen 21.1 areako Baratz Eder urbanizazioko 17 zenbakidun lokalean etxebizitza berria eraikitzeko, etxebizitza adosatua. Horretarako, Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako proiektu basikoa aurkeztu zuen. Aurkeztutako proiektuaren arabera, 57.892,00 eurokoa izango zen obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, bertan dago "Segurtasuna sutea egonez gero" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SI), "Erabilera Segurtasuna eta Irisgarritasuna" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SUA) eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Bigarrena.- 2022ko irailaren 29an, garaiko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2022ko azaroaren 15ean, 72.385.056-P NAN zenbakidunak zuzenketak barneratuta zituen proiektu basikoa aurkeztu zuen.

Laugarrena.- 2023ko ekainaren 23an, garaiko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2023ko ekainaren 26an, garaiko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko teknikariak txostena egin zuen.

Seigarrena.- 2023ko uztailaren 4an izandako batzarrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen obra lizentzia eskaria onartzea.



##### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503

Fecha: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Zazpigarrena.- 2023ko abuztuaren 21ean, 72.385.056-P NAN zenbakidunak Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako exekuzio proiektua aurkeztu zuen. Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiarekin aurkeztu zen (2023-08-18). Bertan ondorengo justifikazioak jaso dira: Eraikuntzako Kode Teknikoaren justifikazioa jaso (SI, SUA, SE, HS, HR eta HE); 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen; eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria; eraikinaren energia-kalifikazioa; segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana; kalitatea kontrolatzeko plana; eta hondakinak kudeatzeko azterlana.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, 65.262,50 eurokoa izango zen obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Zortzigarrena.- 2024ko ekainaren 11n, 72.385.056-P NAN zenbakidunak bizigarritasun lizentzia eskatu zuen. Horretarako hainbat dokumentu aurkeztu zituen: Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako memoria; obra-bukaerako ziurtagiria; kalitate-kontrolaren ziurtagiria; kalitatea kontrolatzeko liburua; aginduen liburua; hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena; eta hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena egiaztatze eskaera.

Bederatzigarrena.- 2024ko uztailaren 5ean, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak etxearen ikuskapena egin zuen.

Hamargarrena.- 2024ko uztailaren 19an, 72.385.056-P NAN zenbakidunak eraikuntza eta eraipen-hondakinen kudeaketaren azken txostena egiaztatzearen ziurtagiria aurkeztu zuen.

Hamaikagarrena.- 2024ko uztailaren 30ean, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak etxearen bigarren ikuskapena egin zuen.

Hamabigarrena.- 2024ko abuztuaren 20an, 72.385.056-P NAN zenbakidunak aurkeztu zuen behe-tentsioko instalazio berria adierazteko erantzukizunpeko adierazpena.

Hamahirugarrena.- 2024ko abuztuaren 8an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hamalagarrena.- 2024ko irailaren 12an Bermeoko Udaleko Urigintza Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.





Hamabosgarrena.- 2024ko irailaren 12an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin zuen.

### Argudioak

Lehenengoa.- 2024ko abuztuaren 8an hurrengokoa adierazi zuen udal arkitektoak bere txostenean:

*“Eskarian esaten da etxebizitza berrian, oro har, proiektuan definitzen diren lanak gauzatu direla eta horrekin eskatzaileak bizigarritasun lizentzia eskatzen du.*

*Obra amaierako dokumentazioarekin batera hurrengoa aurkezten da:*

- *Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako obra amaierako proiektua (memoria eta planoak), dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiarekin (2024-06-05).*
- *obra amaierako likidazioa (65.262,50 € exekuzio materialaren kostua)*
- *obra amaierako ziurtagiria*
- *kalitate-kontrolaren ziurtagiria*
- *kalitatea kontrolatzeko liburua*
- *aginduen liburua*
- *hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena*
- *hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena egiaztatzeko ziurtagiria*
- *behe-tentsioko instalazio berria adierazteko erantzukizunpeko adierazpena*

*Egindako ikuskapenetan, proiektuan definitutako lanak gauzatu direla ikusi da.*

*Hortaz gain, egindako obrak bat datoz aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik obra legeztagarria da eta ez legoke eragozpenik bizigarritasuna emateko aipatutako etxebizitzari, legeztatze dokumentazio guztia espedientean baitago.*

*Bizigarritasuna lortu ondoren, sustatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Katastroan izapidetu beharko du higiezinaren alta, etxebizitza gisa, eta Katastroko erregistroko idazpenaren kopia eman beharko dio Udalari.”*



2023ko uztailaren 4ko Tokiko Gobernu Batzarreko obra-lizentzia onartzen zuen erabakiaren bigarren puntuan hurrengokoa adierazten zen:

*“112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarri beharko da Udalean. Kasu honetan, 698,88 euroko fidantza.”*

Interesdunak 2024ko ekainaren 11an, fidantzaren itzulketa eskatu zuen. Hala ere, 2024ko abuztuaren 8an Bermeoko Diruzainak gordailuaren adierazpena egin zuen adieraziz ez zegoela 72.385.056-P NAN zenbakidunaren izenean 698,88 euroko fidantzarik gordailaturik Bermeoko Udalean.

Bestalde, interesdunak fidantzaren itzulketaren eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan, obraren azken ziurtagiria, azken likidazioa eta hondakinen kudeaketaren ziurtapen txostena, bisatua, ageri da.

Obra handietan, hondakinen kudeaketagatiko gordailatu beharreko fidantza 112/2012 Dekretuan, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena, arautzen da zehazki 5.artikuluan:

*“Hirigintza-lizentziak emateko baldintza gisa, obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko fidantza bat eratzea aginduko dute udalek.*

*Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da fidantzaren zenbatekoaren kalkulua -aurreko artikuluko a) letran aipatzen den azterketan zehaztuko da kostu hori-, eta haren % 120 izango da.*

*Obra egitean hondakin gutxiago sortzen dituzten materialak erabiltzen badira edo eraikuntza jasangarriko baldintzak betetzen badira, hondakinak kudeatzeko kostuaren % 60 izango da fidantzaren zenbatekoa. Baldintza horiek betetzen diren jakiteko, hondakinen kudeaketari buruzko azterketaren datuak egokiak direla egiaztatzea ahalbidetzen duten proiektuaren ezaugarriak aztertuko dira.*

*Fidantza eskudirutan, zor publikoko baloreetan, abal bidez, kauzio-aseguruko kontratu bidez edo legez egin daitekeen beste edozein modutan eman daiteke, eta hirigintza-lizentzia emateko ardura duen udal-organoaren esku utziko da.*



*Behartutako pertsonak alde zuzenetik hala eskatuta eta obran sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatutakoan (dokumentuen bitartez, hurrengo artikuluan ezartzen denari jarraikiz) bakarrik bueltatuko da fidantza. Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen ez bada, fidantza jartzen duen entitateak aukera izango du hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrezko jarduerak egiteko -modu subsidiarioan-, eta hori ezingo balitz, udalerrian ingurumena hobetzeko jarduerak egiteko bideratu lezake fidantzaren dirua, hargatik eragotzi gabe hondakinei buruzko araudian ezarritako zehapen-araubidea aplikatzea.*

...”

**Bigarrena.-** Aipatutako araudian ikusi daitekeen bezala, 112/2012 Dekretuak, eta 2023ko uztailaren 4ko obra-lizentziak argi uzten du obra egiten duen obra sustatzailearen beharra hondakinen aurkezpena, obra hasi baino lehen. Kasu honetan, ez da fidantza hori aurkeztu eta obra egin da.

Hala ere, interesdunak aurkeztutako hondakinen kudeaketaren ziurtapen txostenean, dagokion Elkargotik bisatua, hondakinen kudeaketa on bat ziurtatzen da.

Besteak beste, gogoratu beharrekoa da zein den obretan hondakinen kudeaketagatiko fidantzaren eskakizunaren objektua. Hala nola, aipatutako 5.artikuluak adierazten du “*obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispent-hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko fidantza bat eratzea...*” hau da, eraikuntza eta eraispent-hondakinak behar bezala kudeatuko direla, eta hori interesdunak aurkeztutako hondakinen kudeaketan ageri den ziurtapenetan ageri da.

**Hirugarrena.-** Bermeoko Baratz Eder kaleko 17A lokalean egindako obra etxebizitza bihurtzeko obra amaitu ondoren eta, udal arkitektoak 2024ko abuztuaren 11n egindako aldeko txostena ikusirik, bizigarritasun lizentzia eman daiteke, azkeneko honek emandako oharrei kalterik egin gabe.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatutakori jarraituz, 207 artikuluan aipatutako ekintzak hirigintzako lizentzia behar dute, besteak beste obren lehenengo erabilpenak.

Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 r) eta 210 artikuluek eta Hirigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen



araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2024ko abuztuaren 8an egindako txostenean aipatzen den bezala.

Laugarrena.- Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, hirigintza lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENEGOA.- Bermeoko Baratz Eder 17A lokalari bizigarritasun lizentzia **EMATEA**.

BIGARRENA.- Aurreko argudioetan adierazitakoagatik fidantza ez aurkeztearen eraginak **BERTAN BEHERA UZTEA**.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, dagozkion errekurtsoen aipamenarekin.

LAUGARRENA.- Erabaki hau helaraztea errentako sailari, dagozkion ondorioetarako.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hurrengoko Osoko Bilkuran.

**5.- PII E DIRULAGUNTZA: IPARRAGIRRE 3 BS EZK. 14960505Q NAN ZENBAKIDUN PERTSONA INTERESDUNAREN DIRULAGUNTZA ESKARIA ONARTZEA.**

### **Xedea**

P.I.I.E 22-24 dirulaguntza programaren barnean, 14.960.505-Q. zenbakidun M.J.C.D pertsona interesdunak, kalteberetasun egoeran dagoen partikular moduan, dirulaguntza eskaeraren ebazpena.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2023ko abenduaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean PII E2022-2024 dirulaguntza programaren dirulaguntza deialdia argitaratu zen, hau guztia Iparragirre kaleko 1, 2, 3 eta 4 eta Txibitxiaga 1, 2, 3 eta 4 eta kalteberetasun ekonomikoan



dauden partikularrentzako dirulaguntzak P.I.I.E 2022-2024 programa-esparruaren barruan.

Bigarrena: Dirulaguntza eskuratzeko, pertsona eskatzaileak eskaera inprimakia eta oinarrietan zehaztutako dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute PIIE 2022-2024 programan parte hartzeko.

Hirugarrena: 2024ko urtarrilaren 15ean, 14.960.505-Q NAN zenbakia duen pertsona interesatuak, urrakortasun ekonomikoa duen pertsona gisa, eskabide-orria eta PIIE 2022-2024 programan parte hartzeko oinarrietan adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu zituen.

Laugarrena: 2024ko otsailaren 6an, Bermeoko Udaleko hurbiltasun bulegoko arduradun teknikoak txostenean eskatzailearen dokumentazioa falta zela adierazi zuen.

Bosgarrena: 2024ko otsailaren 8an, udal arkitektoak txostena egin eban.

Seigarrena: 2024ko otsailaren 19an, interesdunak errekerimendua jaso zuen.

Zazpigarrena:- 2024ko otsailaren 23an, interesdunak epea handitzeko eskaera aurkeztu zuen,

Zortzigarrena: 2024ko otsailaren 28an, 14.960.550-Q NAN zenbakidun eskatzaileak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen

Bederatzigarrena: 2024ko ekainaren 13an, 14.960.550-Q NAN zenbakidun eskatzaileak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

Hamargarrena: 2024ko ekainaren 18an Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena eman zuen.

Hamaikagarrena: 2024ko abuztuaren 13an udak kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena eman zuen.

Hamabigarrena: 2024ko abuztuaren 30ean, Urigintza, obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena eman zuen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Udal teknikariek, eskabidea aztertu ondoren, ez dute akatsik identifikatu eta dirulaguntzaren oinarrietan zehaztutakoarekin bat datorrela ebatzi



dute.

Bestalde, inter vivos tramite kasuei dagokionez dirulaguntza hau 26 artikuluan xedatutakoari lotuta dago:

Administrazioak ekintza publikoak sortutako gainbalioetan birgaitze – proiektuaren garapenean parte hartuko duela bermatzeko, betebeharra ezartzen da. Etxebizitza bizen artean eskualdatzen denean, irizpide sozialagatik jasotako diru-laguntzen zenbatekoa udalari itzultzea. Itzulera gertatzeko gehieneko epea hogeita hamar (30) urtekoa da, obraren azken ziurtapena egiten den egunetik hasita.

Etxebizitzen titularrek gizarte-irizpidearen arabera diru-laguntza eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan, non, administrazio-agiri hori ikusita, hipoteka-legeriaren arabera bidezkoa den jabariaren mugatze-erregistroko idazpena egingo baita.

Ezin izango da bizen arteko etxebizitza transmititu saltzaileak eskualdatzen den elementuari egozten ahal zaizkion irizpide sozialaren kontzeptuagatik jasotako laguntzak itzuli dituela egiaztatu ezean.

Arestian aipatutako ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko titularkide bati etxebizitzaren latotalitatea esleitzea, ezkontzak banatzearen, izatezko bikotea dibortziatearen edo haustearen ondorioz edo/eta bizikidetzaren unitatea haustearen ondorioz, lehen mailako odolkidetasuneko kide elkartuen kasuan.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta bide exekutibotik eskatzen ahalko dira.

<b>TRANSMISIO DATA ITZULKETA PORTZENTAIA</b>	
Obraren exekuzio edo lehengo urtean zehar	%100
2. urtean zehar	%96, 67
3. urtean zehar	%93, 33
4. urtean zehar	%90, 00
5. urtean zehar	%86, 67
6. urtean zehar	%83, 33
7. urtean zehar	%80, 00
8. urtean zehar	%76, 67
9. urtean zehar	%73, 33
10. urtean zehar	%70, 00
11. urtean zehar	%66, 67



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503  
Data: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



12. urtean zehar	%63, 33
13. urtean zehar	%60, 00
14. urtean zehar	%56, 67
15. urtean zehar	%53,33
16. urtean zehar	%50, 00
17. urtean zehar	%46, 67
18. urtean zehar	%43, 33
19. urtean zehar	%40, 00
20. urtean zehar	%36, 67
21. urtean zehar	%33, 33
22. urtean zehar	%30, 00
23. urtean zehar	%26, 67
24. urtean zehar	%23, 33
25. urtean zehar	%20, 00
26. urtean zehar	%16, 67
27. urtean zehar	%13, 33
28. urtean zehar	%10, 00
29. urtean zehar	%6, 67
30. urtean zehar	%3, 33
30. urtetik aurrera	%0, 00

#### 8 Taula. Itzulketa oinarria “

Bestalde, oinarri espezifikoetako 37. artikulua hau ezartzen du:

Diru-laguntzak sekuentzia honen arabera ordainduko dira:


prozedura:

a) Hasierako ordainketa, gehienezko zenbatekoaren %20 baino handiagoa izango ez dena, eta 18. artikuluan adierazitako aurretiazko azterlanak eta beharrezko agiri teknikoak idazteak komunitateei eragindako kostuak finantzatzeko balioko duena, bertan adierazitako maximoekin, obrak egiten diren edo ez alde batera utzita eta igorritako fakturak aurkeztean ordainduko dena, beste baldintzarik gabe.

b) Bigarren ordainketa, aurrerakin gisa, gehienezko zenbatekoaren %20 kasu bakoitzean eskatzen diren diru-laguntzak, aurreko atalean adierazitako aurrerakin gisa ordaindutako zenbatekoak kenduta. Ordainketa eskabidea aurkeztu ondoren egingen da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri

hauek erantsiko zaizkio:

8. artikuluan (AZKEN ALDIZ JASOTZEN DUTEN PERTSONEN BETEBEHARRAK) edo 34. artikuluan (DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK) aipatutakoa.



Lehendik dagoen eraikinaren liburua prestatzearen faktura, eraikinaren egungo eta zaharberritutako energia-eraginkortasunaren ziurtagiriak barne hartzen dituen, eta Energia Primario EZ berriztagarriaren kontsumo-murrizketaren ehunekoa berariaz adierazita.

Eraikinaren Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiria dagokion organo eskudunean erregistratzea.

Eraikineko etxebizitza guztien jabaria mugatzeko erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztatzea, oinarri hauetako 25. artikuluan eta 26. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Obra egiteko ardura duen enpresarekin edo enprekin sinatutako kontratuaren edo kontratuen fotokopia, diru-laguntzaren xede diren obra guztiak egingo direla bermatzeko.

Obra hasteko aktaren kopia, jabeen elkarteko lehendakariak, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatua.

c) Benetan eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoaren% 10eko hirugarren ordainketa eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

Jarduketak gauzatzeko zenbatekoaren% 10 gutxienez estaltzen duten fakturak.

Fakturekin batera obra ziurtagiria aurkeztuko da, zuzendaritza fakultatiboak emana.

d) Benetan eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoaren% 15eko laugarren ordainketa eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera. Horrekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

Obra gauzatzeko zenbatekoaren% 25 gutxienez estaltzen duten fakturak. Las

fakturak zuzendaritza fakultatiboak emandako obra ziurtagiriarekin batera aurkeztuko dira.

e) Benetan eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoaren %15eko bosgarren ordainketa eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

Fakturen zenbatekoaren% 50 gutxienez estaltzen duten fakturak, zuzendaritza fakultatiboak luzatutako obra ziurtagiriarekin batera aurkeztuko dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503

Fecha: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9





f) Benetan eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoaren %10eko seigarren ordainketa eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera. Ordainketa horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

Obra gauzatzeko zenbatekoaren% 75 gutxienez estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera obra ziurtagiria aurkeztuko da, zuzendaritza fakultatiboak emana.

g) Gainerako zenbatekoa justifikatzeko kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo atalean adierazten den bezala.

Fase bakoitzean justifikatutakoak baino zenbateko handiagoak ez dira inolaz ere ordainduko.

Bigarrena: 2022ko abenduaren 27ko Eusko Jaurlaritzaren ebazpenaren bitartez, Berreskuratze eta Erresilientzia mekanismoaren baitan, Bermeoko udalari zuzendutako dirulaguntza bat eman zitzaion, beste jarduera batzuen artean, Kurtzio, Zarragoitxi eta Itxasbegi auzoetan hiri berrenoratzeko integralerako jarduerak egiteko.

Esan bezala, dirulaguntzaren jardueren artean 8 blokeen, 90 etxebizitza guztira, birgaitze integraleko jarduerak aurreikusten ziren. Guzti horretarako eta obra horiek aurrera eramateko Bermeoko Udalak dirulaguntza jakin batzuk onartu eta zabaldu zituen.

Aipatutako dirulaguntza hauek P.I.I.E. 2022-2024 programaren barruan aurreikusitako Bermeoko Udaleko Kurtzio, Zarragoitxi eta Itxasbegiko guneeetako kalteberatasun egoera ekonomikoan dauden jabe elkarte eta, gehigarri moduan, partikularrentzako, dirulaguntzen esparruan kokatzen dira.

Besteak beste, aurretik aipatutakoak dirulaguntzak eskatzeko dagozkion deialdia eta oinarri espezifikokoak onartu ziren 2023ko irailaren 28an, dirulaguntzaren deialdia zabaltzea onartuz, 2023ko azaroaren 21ean.

Eskatzailearen eskaera eta honek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, udal teknikariak adostasuna eman da eskatzaileak aurkeztutako eskariari.

Bestalde, eskatzaileak dirulaguntzei buruzko legedian eta, bereziki, dirulaguntzen oinarri espezifikoetan agintzen diren baldintza eta betebeharrak oro bete beharko ditu.

Hirugarrena: Azkenik, eta udal gertuko bulegoaren arduradunaren eta udal



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503  
Data: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9



arkitektoaren txostenak ikusik, ez dago arazorik eskatzailearen eskaera onartzeko, ordainketak dirulaguntzen oinarri espezifikoetan xedatzen den moduan egikaritzea.

Aurrerapen hauek ez dira bermatu beharko. Horretaz gain, dirulaguntza hau Jabe elkarteari ordainduko zaio endosatzaile bezala onuradunari dagozkion obligazioak bideratzeko.

Dirulaguntzaren emakidarako organo eskuduna baina dirulaguntzen oinarri espezifikoan 36. artikuluari jarraiki Toki Gobernu Batzarra.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Eskatutako dokumentazioa eta gainerako baldintzak aztertu ondoren, 14.960.505-Q NAN zenbakidun M.J.C.D interesdunaren eskaera onartzea.

**BIGARRENA:** Interesdunak dirulaguntza eskatzeko espedientean dagoen dokumentazioa oinarritzat hartuta, 5.004,00 €-ko dirulaguntza ematea, dirulaguntzen oinarri espezifikoetako 4. artikuluan aurreikusitako funtsak birgaitzeko jarduerak egiteko pertsona horri dagozkion betebeharrak finantzatzeko. Dagozkion ordainketak egitea, dirulaguntzen oinarri espezifikoetan zehaztutakoaren arabera. Egin beharreko kreditu atxikipenei dagokienez, dagokion kreditu atxikipena egingo da aipatutako zenbatekoarengatik eta hura Udalaren 00700-15120-7810200 eta 00700-15120-7810293 kontu sailletako partidei egotziko zaie.

Finantzaturiko jarduketa: Iparragirre 3 eraikina zaharberritzea da, jarduketa Energia Eraginkortasuna, irisgarritasuna eta obra osagarriek osatzen dabe. Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2022ko abenduaren 27an sinaturiko akordioan jasotako jarduera – eremuaren barruan dago, 8 eraikin eta 90 etxebizitzak osatzen duren jarduera – eremua, eta Iparragirre kaleko 1, 2, 3 eta 4 zenbakietan eta Grupo Txibitxiaga 1, 2, 3 eta 4 zenbakietan daude. Atari hau, Iparragirre 3, jarduketa eremuaren barruan dago eta, beraz dirua ematen zaio, dirulaguntza emateko oinarriak betetzen dabezalako. Hala nola, eta espedientean ikusi daitekeen moduan, hau guztia dirulaguntzen oinarri espezifikoan 8. eta 34. artikuluek finkatutakoaren arabera

Dirulaguntza hau bizilagunen elkarrekin helburu horretarako bakarrik irekitako kontu korrantean ordainduko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503

Fecha: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Hortaz, hona hemen laguntzaren zerrenda eta portzentajea:

Eraikuntza bakoitzaren Posta Helbidea	Solairua	Eskua	Erabilerak	Kopurua	Bermeoko finka zk.	Ohar soilaren deskribapena	Etxebizitza
					Finca de Bermeo nº.	Descripción de la nota simple	
Dirección de cada Edificio	Planta	Mano	Usos	Número	Etxebizitza	Etxebizitza	Etxebizitza
					Vivienda	Vivienda	Vivienda
IPARRAGIRRE 3	BS/PB	EZK/IZ	Etxebizitza/Vivienda	1	4791	Urbana (...) de la casa doble en el solar en "la Cruz" de Bermeo hoy calle Iparraguirre nº3 Bermeo (...)	Vivienda nº 13

**HIRUGARRENA:** Diruz lagundutako obrak egiteko gehieneko epea 18 hilabetekoa izango da, obra-lizentziaren emakida jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Hala ere, laguntza eskatzaileei egotz ezin dakiekeen justifikatutako kausagaitik obraren hasiera edo egikaritzan atzerapena bada, ezarritako epea amaitu baino lehen obra luzatzeko eskatu ahal izango du.

**LAUGARRENA:** Diru-laguntza emateko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, honako hauek adierazita: deialdia, programa, esleitzen zaion aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren xedea edo helburuak. Hori guztia, diru-laguntzaren oinarri espezifikoetako 33. eta 12. artikuluei eta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 9/213 Legeari jarraiki, oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei dagokienez.

**BOSGARRENA:** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta jakinaraztea diru-laguntza oinarri espezifikoetako 24. artikulua araberako justifikatu behar duela.

**SEIGARRENA:** Erabaki hau Ekonomia eta Diruzaintza sailei jakinaraztea.

**ZAZPIARRENA:** Erabaki honen berri ematea Osoko Bilkura honetan.



**6.- PII E DIRULAGUNTZA: IPARRAGIRRE 3, 1 EZK. Y2611726K NIE ZENBAKIDUN PERTSONA INTERESDUNAREN DIRULAGUNTZA ESKARIA EZ ONARTZEA.**

**Xedea**

Y2611726K N.I.E. zenbakidun A.A. jaunak Iparragirre , 3 zenbakiko, 1 ezkerreko helbidean PII E 2022-2024 Hiri Berroneratze programako dirulaguntzen esparruan obrak egiteko xedearekin komunitate eta egoera ekonomiko larrian dauden partikularrentzako dirulaguntzen eskariaren ebazpena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- PII E 2022-2024 programaren, Iparragirre kalea 1, 2, 3 eta 4 zenbakietako eta Grupo Txibitxiaga 1, 2, 3 eta 4 zenbakietako jabe komunitateen energia birgaitzeko eta irisgarritasuna hobetzeko laguntzak, PII E 2022-2024 programako esparruak dirulaguntzaren deialdia 2023ko abenduaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- 2023ko abenduaren 22an, A.F.F. andreak, Y2611726K N.I.E. zenbakidun A.A. jaunaren izenean, PII E 2022-2024 programan parte hartzeko eskaera-orria eta oinarrietan adierazten dituen agiriak aurkeztu zituen.

Hirugarrena.- 2024ko otsailaren 6an gertuko bulegoko arduradun teknikoak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2024ko otsailaren 8an udal arkitektoak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2024ko otsailaren 12an falta zen dokumentazio aurkezteko errekerimendua egin zen.

Seigarrena.- 2024ko otsailaren 23an A.F.F. andreak, Y2611726K N.I.E. zenbakidun A.A. jaunaren izenean epea luzatzeko eskaera egin zuen.

Zazpigarrena.- Espedientean ageri da errentako datuak baina hala ere ez da indarrean dagoen NAN dokumentaziorik aurkeztu.

Zortzigarrena.- 2024ko abuztuaren 9an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.



Bederatzigarrena.- 2024ko abuztuaren 9an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena igorri zion ebazteko organo eskudunari.

### Argudioak

Lehenengoa.- Udal teknikariek aztertu dute interesdunaren eskarian dokumentazio falta zaiola eta ez duela aurkeztu aurrerantzean.

Bigarrena.- 2022ko abenduren 27ko Eusko Jaurlaritzaren ebazpenaren bitartez, Berreskuratze eta Erresilientzia mekanismoaren baitan, Bermeoko udalari zuzeneko diru-laguntza bat eman zitzaion, beste jarduera batzuen artean, Kurtzio, Zarragoitxi eta Itxasbegi auzoetan hiri berrenoratzeko integralerako jarduerak egiteko.

Esan bezala, diru-laguntzaren jardueren artean 8 blokeen, 90 etxebizitza guztira, birgaitze integraleko jarduerak aurreikusten ziren. Guzti horretarako eta obra horiek aurrera eramateko Bermeoko Udalak diru-laguntza jakin batzuk onartu eta zabaldu zituen.

Aipatutako diru-laguntza hauek P.I.I.E. 2022-2024 programaren barruan aurreikusitako Bermeoko Udaleko Kurtzio, Zarragoitxi eta Itxasbegiko gunetako kalteberatasun egoera ekonomikoan dauden jabe elkarte eta, gehigarri moduan, partikularrentzako, diru-laguntzen esparruan kokatzen dira.

Besteak beste, aurretik aipatutakoak diru-laguntzak eskatzeko dagozkion deialdia eta oinarri espezifikoak onartu ziren 2023ko irailaren 28an, diru-laguntzaren deialdia zabaltzea onartuz, 2023ko azaroaren 21ean.

Dirulaguntzak arautzen dituen oinarri espezifikoaren 34.artikuluaren hurrengokoa adierazten du:

*“Autonomia Erkidegoa ordezkatzeko duenak izapidetu beharko dituzte laguntzak jabeei, bizikidetzaren unitateari edo eskaera aurkeztu duen partikularri – azken hori ordezkatzeko egon ahal izango da, egoitzan horretarako eskuragarri dauden ereduaren arabera.*

*Bermeoko Udalaren elektronika. Horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

*36. artikuluan adierazitako lehen ordainketarako:*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503

Fecha: 25/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



a) Eskatzailearen datuak, izen-abizenak edo sozietatearen izena eta IFZ adierazita. Baldin eta eskatzaileak birgaitzearen agente edo kudeatzaile bat izan behar du. Ahalduntzen eta baimentzen dituen laguntzen azken hartzaileak horrela jokatzen.

...”

Eskatzailearen dokumentazioa aztertuta, lehen adierazi den bezala, frogatu da bere identifikazio dokumentazioa ez dagoela indarrean eta ez duela aurkeztu, bakarrik errenobazio hitzordua aurkeztu du.

Hirugarrena.- Azkenik, aurrekoa esanda ezin da eskatzailearen eskaria onartu zeren ez du diru-laguntzaren oinarriak eskatzen dituen dokumentazioaren betekizunak betetzen.

Dirulaguntzaren emakidarako organo eskuduna oinarri espezifikoaren 36.artikuluari jarraiki Tokiko Gobernu Batzarra da.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2023ko abenduaren 22an, A.F.F. andreak, Y2611726K N.I.E. zenbakidun A.A. jaunaren izenean, PIIE 2022-2024 programan barnean, eskatutako dirulaguntza eskaria ezezte.

BIGARRENA.-Interesdunari erabaki hau jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau helaraztea Bermeoko Udaleko Ekonomia eta Diruzaintza sailei.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hurrengoko Osoko Bilkuran.

## **7.- BEGIRALE IKASTARORAKO PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA.**

### **Xedea**

2024ko urrian hasiko den begirale ikastarorako prezio publikoaren onarpena izapidetzea.

### **Aurrekariak**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
25/09/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024

DOCUMENTO: 20241103503

Fecha: 25/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Lehenengoa: Gazteria Sailak Bermeoko gazteei aisialdiko begirale ikastaro trinkoa egiteko aukera eskaintzen du. Ikastaro honek ofizialtasuna dauka eta gainditu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Aisialdiko Begirale titulua lortzeko aukera dago.

Bigarrena: Bermeon erroldatutako 35 urtetik beherako gazteek daukate lehentasuna parte hartzeko. Denek, 2025ko ekainaren 30a baino lehen 18 urte beteta eduki beharko dituzte.

Hirugarrena: Gutxienez 12 ikaslek parte hartu behar dute taldea osatzeko.

Laugarrena: Gazteria Sailak ikastaroa antolatzen du eta partaideek matrikula ordaindu beharra dute.

Bosgarrena: Bermeon erroldatutako 35 urtetik beherako gazteek, Bermeoko Udalaren matrikulan diru laguntza izango dute.

Seigarrena: Azken lau urteetan hau izan da parte hartze kopurua:

Urtea	Partaideak	Kostua	Ordaindutako zenbateko (partaide bakoitzeko)
2023-2024	16	6.000,00 €	350,00 €
2022-2023	14	6.000,00 €	350,00 €
2021-2022	16	6.000,00 €	350,00 €
2020-2021	12	6.000,00 €	350,00 €

Zazpigarrena: Interesdunek, izena ematerakoan, 50 euroko fidantza ordaindu beharko dute plaza gordetzeko, eta fidantza hori itzuli egingo zaie matrikula formalizatu eta ordaintzerakoan. Kopuru hau Udaleko banku kontu korrontean ordainduko da.

Zortzigarrena: Ikastaroa abian jartzeko gutxienerako taldea osatuko ez baliteke, fidantzaren zenbatekoa itzuli egingo da.

Bederatzigarrena: Matrikularen ordainketa helbideratu ahal izango da. Hala bada, interesdunak banku-kontuaren zenbakia eta kontuaren titularraren datuak eman beharko ditu.

Hamargarrena: 2024ko uztailaren 11an Ekonomia, Ondare eta Errenta teknikariak, aldeko txosten tekniko ekonomikoa egin zuen.



Hamaikagarrena: 2024ko abuztuaren 1ean behin behineko kontu-hartzailearen 21/2024ko txostenaren arabera, adostasunean fiskalizatzen du aurkeztutako proposamena

Hamabigarrena: 2024ko irailaren 18an erakunde eta kontu batzorde bereziak proposamena diktaminatu du.

### Argudioak

Lehenengoa: Apirilaren 2ko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. eta 106. artikuluen arabera administrazio publikoek, eta zehazki, tokiko ogasunek, zerga eta finantza eskumenak dauzkate, Konstituzioaren 142. artikuluan jasotakoa bermatzeko.

Bigarrena: Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Testu erregulatzaileraren 3. artikuluaen arabera:

### “ZERGAPEKO ZERBITZU EDO JARDUERAK

#### 3. artikulua:

*Zerbitzu edo jarduera hauek eskaintzearen truke ordaindu beharko dira, bereziki, prezio publikoak:*

*1.- Ikastaroak, tailerrak, aisialdi eta kiroleko zerbitzu eta programak, kulturakoak, pertsona nagusienak, gazteenak, berdintasunekoak eta antzekoak, alor bakoitzean eskumena duten Udal sailek, enpresa-sozietate publikoek edota erakunde autonomoek bultzatutakoak. (...)*

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren

#### “44. artikulua: Kontzeptua

*Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik, beti ere foru arau honen 21. artikuluko 1. atalean zehaztutako inguruabarretariko bat ere ematen ez bada.”*

Hirugarrena: Apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/195 Legean honako xedatzen da:

#### “25. artikulua





1.- Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

2. - Udalerrriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

(...)

k) Gizarte-zerbitzuak, gizarte-sustapeneko zerbitzuak eta gizarteratzeko zerbitzuak ematea.

m) Kultura eta kiroleko jarduerak zein instalazioak; aisialdia betetzea; turismoa.

n) Hezkuntzaren programazioan parte hartzea eta hezkuntza-administrazioarekin elkarlanean aritzea ikastegi publikoak sortzen, eraikitzen eta mantentzen; ikastegietako kudeaketa organoetan esku hartzea, eta nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea (...)"

Laugarrena: Prezio publiko hauek finkatzeari buruzko kopuruaren egokitasunari dagokionez, indarrean dagoen Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauan honakoa xedatuta dago:

**“46. artikulua. Ordaindu beharra dutenak.**

Prezio publikoa duten zerbitzu edo jardueren onurak jasotzen dituztenek ordaindu beharko dute delako prezio publiko hori.”

**“47. artikulua. Zenbatekoa.**

1. Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua bete beharko du, gutxienez, prezio publikoen zenbatekoak.

2. Horrela aholkatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arazoak daudenean, erakundeak aurreko atalean aurreikusitako mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan behar diren zuzkidurak izendatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan, halakorik dagoenean, diferentzia estaltzeko.”

Bosgarrena: Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren prezio publikoak finkatzeko prozedura hauxe da:

**“26. artikulua. Tasak ezartzeko erabakiak: txosten tekniko-ekonomikoa**

Txosten tekniko-ekonomikoak ikusirik hartu beharko dira jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen ondoriozko tasak ezartzeko erabakiak nahiz zerbitzu berriak osorik edo zati batez finantzatzekoak; txosten horietan, agerian jarriko



da halako zerbitzuen merkatu-balioa edo haien kostua nola estaliko aurreikusten den, hurrenez hurren.

Ez da aurreko lerroaldean aipatzen den txosten tekniko-ekonomikoa behar errebalorizazio edo eguneratze orokorrek eragindako erabakiak hartu nahi badira, ez eta tasen zenbatekoa gutxitu nahi denean ere, salbu eta haiei dagozkien zerbitzuen kostua nabarmen gutxituko denean.”

**“50. artikulua. Finkapena.**

1. Korporazioaren osoko bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea; hala ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritz, tokiko gobernu batzordeari eskuordetzeko ahalmena izango du. “

Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Testu erregulatuaren 5. artikulua arabera:

**“5. artikulua**

(...) Prezio publikoekin lotutako zerbitzuak ematen dituzten Udal sailek, enpresa-sozietate publikoek edota erakunde autonomoek euren proposamenak aurkeztuko dituzte, dagozkien txosten teknikoekin batera, eta Ekonomia eta Ogasun Sailera igorriko dira, han izapidetzeko. Ekonomia sail honek txosten tekniko ekonomikoa prestatuko du, gutxienez zerbitzuaren kostua estali dela egiazta dezan, eta prezio publikoa onartzeko proposamena Ogasun batzordera igorriko da diktaminatzeko. Irizpen hori Gobernu Batzarrera helduko da erabakia har dezan.

Aurreko atalean aurreikusitako mugaz azpiko prezio publikoak finkatu ahal izango dira baldin eta gizarte, ongintza edo kultura arazoengatik edo herriaren onuragatik hala komeni bada. Kasu horretan, Ekonomia eta Ogasun Sailera igorri beharreko proposamenak, herri onura hori justifikatzeaz gainera, alderik egotekotan hura estaltzeko adinako aurrekontu- dotazioa badagoela egiaztatu beharko du.

Prezio publikoa onartzeko erabakian ezinbestean adierazi beharko da zein indarraldi izango duen, eta berriaz aipatu beharko du balio erantsiaren gaineko zerga eta ezar litezkeen gainerako zergak ezarri behar izango zaizkion ala salbuetsita egongo den.”

Seigarrena: Prezio publikoaren zenbatekoa zehazterakoan kontuan hartu behar da BEZa aplikatu behar bada. Azaroaren 9ko 1994/7 Foru-arauak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoa, zehazki 7.8. artikuluan, zergari loturik ez dauden eragiketei buruz honakoa adierazten du:



“A) Administrazio publikoek zuzenean eginiko ondasun-emateak eta zerbitzu- prestazioak, bai eta C) eta D) letretan adierazitako entitateek eginikoak ere, baldin eta kontraprestaziorik gabe edo tributu erako kontraprestazio bidez egiten badira. “

Zazpigarrena: 2023-2027 agintaldi planaren arabera Gazteria Sailaren helburu estrategikoen artean, gazteei aukera hezigarriak eskaintzea dago. Prestakuntza honen bidez hezkuntza astialdirako hezitzaileak trebatzea nahi da eta gazteak gaitu lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan dezaten.

Zortzigarrena: Helburua da Bermeoko eta Busturialdea osatzen duten udalerrietako gazteei prestakuntza hurbiltzea eta herrian jaso ahal izatea, herrian bertan egitea Bilbora joan beharrik gabe.

Bederatzigarrena: Espediente honi dagokion tramiteak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Arauaren 50. artikuluan agertzen direnak izango dira, onarpena onartzea Osoko Bilkurari dagokio, hala ere Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzeko ahalmena dago, eta 2017ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran onartutako prezio publikoak arautzen dituen testu erregulatzailaren 9.3 artikuluan onartuta gelditu zen esku ordetzea Tokiko Gobernu Batzarrean.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2024ko urrian hasteko antolatuko den begirale ikastarorako prezio publikoak ezartzea modu honetan xedatuta:

Nori bideratuta	Prezio Publikoa
Bermeon erroldatutako 35 urte arteko gazteak	350,00 euro
Bermeon ez erroldatutako 35 urte arteko gazteak	450,00 euro

BIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

HIRUGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako prezio publikoen aldaketen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea onartzea, aldaketa hauen berri Ekonomia eta Errentari ematea, eta webgunean publikatzea onartzea.



**8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Ez da ezer adierazi.


**9.- ESKARI ETA ITAUNAK**

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzaileak eta datak*

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E80010D68F00H6S6T8A3R1K9</p>	<p style="text-align: center;"><b>Sinadurea eta data</b></p> <p style="text-align: center;">JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/09/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/09/2024</p>	<p>DOCUMENTO: 20241103503</p> <p>Datea: 25/09/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	---	---

